

## HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA. 2019

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den uztailaren 19an Bizkaiko Garraio Partzuergoaren eta partaidetutako Metro Bilbao SA sozietate publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari buruzkoa.

2019ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du bietarako, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Partzuergoaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina **20,9** milioi euroan murriztuko litzateke. Bestalde, inbentario fisiko eguneraturik ez izatea eragozpena da ibilgetu materialari buruzko iritzia emateko orduan. Gainera, Partzuergoaren memoriak ez du adierazten Barik sistemako Metro Bilbaoren likidazioari dagozkion 4,1 milioi euro gastuetara eta etorkizuneko garapenarako inbertsioetara bideratzeko konpromisoa dagoenik. Metro Bilbaori dagokionez, ezin da jakin zenbateko kopurua jasanaraz dakioken hirugarrenen jabetzako ondasunak erabiltzeagatik (Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta beste erakunde publiko batzuk) eta Bilboko Hiri Trenbidea eraikitzeke kontzeptuagatik.

Txostenak ondorioztatu du Partzuergoak eta Metro Bilbaok zuzentasunez bete dutela beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia 2019ko ekitaldian, nahiz unean uneko zenbait salbuespen azaleratu diren langileen eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren ataletan; bada, langileen atalean Partzuergoan berariazko osagarria Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako ehunetik gora handitu da, eta Sozietateko aldi baterako 10 lan-kontratu mugagabe bihurtu dira, hitzarmen kolektiboan aurreikusitako barne-sustapeneko prozeduraren bidez; kontratazioaren atalean, berriz, Metro Bilbaok, kontratu baten gastua egikaritzen jarraitu du mugaeguneratu ondoren, harik eta berria esleitu arte.